

Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Nola ez ditudan idatzi nire poemetako batzuk

IGERILEKURAKO bidean noa. Igerilekura joateko indarra biltzea egitandia dut eta pozbidea, bizitza ordenatuagoaren lehen zantzua. Igerilekura doan bidea –behin abiatzea lortzen dudanean– beti du zorientasunak errazten: neure osasunari on egingen dion ariketa fisikoa alde batera, hemendik gutxira edertasunaren lekuko zuzena izanen naiz, beteen ulertzen dudak formatuan, humanoan, eta, ez halabeharrez aurrekoarekin lotuta, sorkuntza literariorako abagunea izanen dut.


Nire poema gehienak igerilekuan sortu ditut, igerian bururatu zaizkidalako edo, egindakoak neure buruari errezitatuz, uretan zuzendu edo baztertu ditudalako. Uretan beti entretenitu naiz hitzekin, hauek hark osatuta daudela sinesteraino.

* * *

IGERILEKURAKO bidean noa, poema bat idazteko gogoz nagoelako, poema bat etor dakidalako gogoz. Literatura borondate kontu bat ere bada. Bakardadea eta etsipena behar ditu. Garai batean erruz nuen bakardadea eta etsipenetik. Orain, drogazale zailduagoa, nik bilatu behar ditut edo antzeratu.

Igerilekurako bidean noa eta euria hasi du. Oinez jarraitu dut. Jendea babestokietara sartu edo korrika egiten du hormatik ahalik eta arrimatuen. Nolanahi ere busti behar denaren baretasunarekin, beste logika batek mugiaraziko banindu bezala, nik ez dut halakorik egiten.

Poema bat bururatu zait, zeinean protagonista –lehen pertsona bat: ni– igerilekurantz doan baina bidean euria egiten dion. Kale erdian gelditu egiten da –akaso, poemaren lehen bertsioan, zabaltzen ditu besoak, orrazketaren zain– eta sentitzen du bila zihon garbitzapenak bera bilatu eta aurkitu duela. Ohartzen da jada ez duela igerian ibili beharrik, naturak eskaini dion ur jasa ezinen diolako inolako piszinak berdindu. Bira eman eta



Joseba Larratxe

Zalantza egiten dut –euripean, nagoen moduan, bustirik– bira eman, etxera itzuli ez itzuli, poema hori idaztera. Berez, poemako pertsonaia bezala, bilatzen ari naizen inspirazioak ni neu aurkitu nau. Idatzi beharko nuke ikustearren idaztea azkenean merezi ote duen. Duda ere pizten dit poemak iradokiko lukeena errazkeria ote den: ur basa ur menderatua baino hobetzat ematea, sublimea ederraren gainetik jartzea, igerilekuei (neurri batean uraren lorategi edo baratze itxiak dira igerilekuak) diedan maitasuna traizionatuz.

Ohartzerako, igerilekuaren sarreraraino iritsi naiz. Orain barregarria litzateke buelta ematea. Poema beti dezaket geroago idatzi. Edo ahanzi.

* * *

BAINUJANTZIAN ekin diot temati ura goldatzeari, ondoko kalearen igerilariarekin lehia sekretuan, baina poema hori dagoeneko idatzita daukat. Serieen arteko atsedenaldira batean biok gatoz bat. Begiratu diot eta –hor ageri zait azkenik poemarako gaia– aurpegi bustiaren erdian odol anpulu bat hasi zaio sudurrean eta aho ertzetik behera irristan isuri, gorritz koloreztatuz musua. Mutila ederra da. Odolak, ahuldu ordez, heroi itxura ematen dio. Jakin dut poema eskainiko diodala.

Poesia gauzen eta pertsonen gaineko jabegoa galdatzeko bide bakarra dut.

Heroiari menia eman eta ohartarazi diot gizakia dela, sudurreko odol jariora baduela. Berak ez dit ulertzen. Amore emateko aukera aztertzen dut, horrek eskainiko zidan poema –odol lorratza uretan– aurreikusiz. Neure sudurra seinalatzen dut eta berak ere bai berea. Neure poeman biok odoletan bagenitu sudurrak, gorritz koloreztatuz muxuak?

Urrutiegira eraman dut olerkiaren aukera. Pasadizoak hona ekartzeko

besterik ez dit dagoeneko balio. ■

